



Santa Ana egun handia- Lasarte-Oriako erdialdean atzo Santa Ana eguna ospatu zen. Goizean, Ama Brigitarren komentuko kaperako mezarekin hasi eta gaur Okendo plazan parodia umoretsuarekin amaitu zuen eguna. Azken honetan herriko Danok-Kide elkarteak omendu zuen bere 50 urtetan egindako lan onagatik. Ohiturari jarraiki eguna mezarekin hasi zen, ondoren hamaiketako herrikoia egin eta Erketzeko dantzariak agurra dantzatu zuten Santa Ana karkaban. Parodiak bizi dugun krisi ekonomikoa izan zuen ardatz. Eguna emandakoa argazki eta zehaztasun gehiagorekin erdiko orrialdeetan aurkituko duzue eta Txintxarri.info-n!

TXINTXARRI oporretara doa

Txintxarri aldizkaria eta txintxarri.info orrialdetan lan egiten dugunok abuztuan oporretara goaz. Indarrak berritu eta irailan berritu ere izango gaituzue.

Bien bitartean, herriko albisteak Txintxarriko twitter eta facebook kontuetan aurkituko duzue.

3 GIZARTEA Pertsona adinduei zuzendutako etxe kolektiboak

Lasarte-Oriako Udaleko Gizarte Zerbitzuek bere babesean ziztuzten adinduentzako etxebizitzak, etxe kolektibo bilakatu dituzte. Gainera, egun hauetan etxe aldaketa egin dute, Beko kaleko bi etxebizitzetara. Era honetara, erabiltzaileen autonomia handitu eta landu nahi dute Gizarte Zerbitzuek.

6 KIROLA Odriozola eta Martin irabazle Santa Ana pala txapelketan

Urtero bezala, Santa Ana egunean pala txapelketako finala jokatu zen atzo arratsaldean Loidi-Barrengo pilotalekuan. Odriozola-Martin gailendu ziren Etxezarreta-Bardaji aurkako final handian. Hirugarren postua, berriz, Iñigo Arluziagak eta Carlos Garciak lortu zuten.



Xaralphoto

NAN argazkiak momentuan 3,50 eurotan

Mikro-saioa: estudioko argazkia momentuan eta 5 eurogatik!

Zure neurrira egindako ezkontza saioak

Kale Nagusia, 44 Lasarte-Oria Tlf: 943248755

www.xaralphoto.com



Neure kabuz



Unai Muña

Ile horiko printzesa!

Albotik eta alboka, maingirepeko intimitatean, nire besoak bere bular aldean biltzen du. Erabat itsatsita gaude. Astiro eta sugeterentz ari da ipurdiarekin mugimendu zirkularretan, nire zakila nabaritu nahian edo, nik ere indar egin dezadan. Belarri ertzeraz sentsualitate xuxurlatu nahi balio bezala. Hankak gurutzatu ditugu.

Lepoari buelta erdia eman eta bere bi begi urdinekin erakarri nau. Urre koloreko ilea bildu eta eman dit muxu, eta beste bat, eta hirugarrena... pasioak bereganatu gaituen arte. Nire gainean jarri da, bere aginteak ni sutan jartzeraino. Titi buruak miazkatu dizkit, zilborrarenekin jolastu du eta zupatzeari ekin dio, ni bero-bero ikusteak zorazten duelako.

Alua blai, nire zakilaren puntarekin ari da jolasean. Orain bai, orain ez, orain bai, orain ez... Desioa biderkatuz. Eta azkenean! Begiak itxi eta bere barruan nagoela sentitu dut, bere zoko ezkutue-tetara iritsi naizenaren ustetan. Eta segi!

Gauak luze jo du. Gustagarri. Biak ahoz gora zigarro bana dugu eskutan. Irribarrez begiratu nau, aingeruen pare. - ¡De lujo! Esan diot nik. Eta muxu eman dit ezpainenetan, eta beste bat, eta hirugarrena... Larruaren bidez komunikatzen gara gu, usainez, begiradaz, hasperenez... Sarri ez dugu hitzen beharrik.

Batzuentzat bart gaueko kronika, besteentzat berriz, fantasia kronikoa. Desioa, Morboa, mimoak, erakarpena, maitasuna, frustrazioa, bizioa, pasioa, beldurra, miresmena, sentsualitatea... Zenbat ematen diguten eta zeinen gutxi kontatzen ditugun. Zergatik, baina? Aiiii! Ile horiko printzesa... Noiz zatoz berriz!

Zorion agurrak



Aitana

Zorionak pottoki! 6 muxu potolo etxekoan partetik.



Larraitx

Zorionak! "41" muxu handi Jalguneko lagunen partetik.



Oihane

Zorionak maitia! Txoko-marrubizko 4 muxu, guztion partetik.



Unax

Zorionak etxeko bonboi goxoari!! 7 muxu handi gurasoen partetik.



Asier eta Nora

Zorionak bikote! Txokolatzeko muxuak amatxoren partetik eta ondo pasa!!



Maddi

Zorionak etxeko printzesari! 10 muxu handi gurasoen partetik.



Ambar

Zorionak! zure 8 urte-betetzeari. Muxu handi bat zure familiaren partetik.



Ximon

Ederki pasa diagu aurtent! Pastela mundiala. Muxu pila aita ama eta Inge!



Josu

Zorionak! Ondo ondo pasa urtebetetze egunean. Muxu handia zuretzat!!



Ane

Zorionak printzesa. Ondo pasa urtebetetze eguna! 7 muxu familiaren partetik.



Katixa

Zorionak!! 7 urte ez dira gutxi zure ohea egiten hasteko! Muxuak Montse, Ariane eta hiruron partetik.

Azoka txikia

Lan-eskaintzak

• Bi ume zaintzeko neska euskalduna behar da irailerako. Orduetgia 17:00etatik 20:15era izango da. Harremanetarako, 685 751 268

Lan-eskariak

• Mutila eskaintzen da edozein lan egiteko, taberna edo jateke bateko sukaldetan, margo-lanak egiteko... Harremanetarako, 648 637 732.
• Edozertan lan egingo nuke, esperientzia dut pertsona helduak zaintzen eta garbiketari. 619 803 199.
• Emakumea eskaintzen da haurrak edo pertsona adinduek zaindu edo etxeko lanak egiteko orduka edo interna moduan lan egiteko. Harremanetarako, 608 131 170.
• Emakumea eskaintzen da interna moduan edo orduka etxeko lanak, garbiketari edo helduak zaintzeko. Esperientzia dauka. Harremanetarako, 669 931 026.

netarako, 669 931 026.

• Emakumea eskaintzen da interna moduan edo orduka etxeko lanak, garbiketari edo helduak zaintzeko. Esperientzia eta paperak dauka. Harremanetarako, 619 803 199.
• Lan bila nabil, edozertan egingo nuke, Reina Cruz 686820145

Eskaintza inmobiliarioak

• Etxebizitza alokatzen da Sasoeta auzoan. 2 logela ditu eta berogailu zentrala. Abala eskaintzen da. Telefonoa: 649526766.
• Pisu ia berria alokatzen da: 2 logela eta 2 bainurekin, altzari guztiekin... Garajea aukeran. 650016900
• Garaje bat alokatzen dut Lasarte-Oriako erdialdean. Harremanetarako zenbakia, 686 674 552.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

• Izar Arregi Alkorta, uztailaren 18an.
• Markel Sobrido Sevillano, uztailaren 16an.



Heriotzak

• Mertxe Peña Iradi, uztailaren 23an, 70 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

| | | |
|----------------|------------------------------|------------|
| Ostirala, 27 | Urbistondo, San Frantzisko 1 | 943 366567 |
| Larunbata, 28 | De Miguel, Kale Nagusia 32 | 943 371151 |
| Igandea, 29 | De Miguel, Kale Nagusia 32 | 943 371151 |
| Astelehena, 30 | Acha-Orbea, Hipodromo et. 6 | 943 363549 |
| Asteartea, 31 | De Miguel, Kale Nagusia 32 | 943 371151 |
| Asteazkena, 01 | Urbistondo, San Frantzisko 1 | 943 366567 |
| Osteguna, 02 | Acha-Orbea, Hipodromo et. 6 | 943 363549 |

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Chucua, Kardaberaz 48
Hernani, Tel.: 943 551 793

• Apartamentua alokatzen dut Lasarte-Oriako erdialdean. 54 metro karratu ditu eta logela bat du. Harremanetarako, 678 582 706.
• Bi garaje alokatzen dira Urbarten. Oso ekonomikoak. Marisol, 697 905 233.
• Etxea alokatzen da Usurbilen. Lau logela, bi komun, sukaldaria eta egongela. Garajea aukeran ere bai. 649 26 17 04 Marijo.
• 50 metro karratuko etxebizitza alokatzen da Billabonan. Harremanetarako, 687 422 106.

Bestelakoak

• Mobilhome bat alokatzen da uztaile eta irailen, Landetako Leon lakan. Harremanetarako, 660 057 667.
• Pisu bat alokairuan hartu nahiko nuke, Lasarte-Oria erdian. Harremanetarako, 602 187 900, M.Afzaal.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskara Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua

GIZARTE ZERBITZUAK

Etxe kolektiboak adinduentzat

Lasarte-Oriako Udalaren etxebizitza tutelatuak etxe kolektibo bihurtuko dira

Gizarte zerbitzuek aldaketa sakona egin dute udalak bere gain dituen pertsona adinduentzako etxebizitza tutelatuetan. Zerbitzua hobetzeko asmoz batetik etxeen kokalekua aldatu eta plaza kopurua handitu dute eta bestetik, izendapena aldatu dute hementik aurrera etxebizitza kolektiboak izango dira.

Hiru gizon eta lau emakume dira egun Udalak dituen etxebizitza tutelatuak bizi direnak eta egun hauean etxe-aldaketa egin dute.

Asteazkenean Gorka Lizarraga Gizarte Zerbitzuetako burua, Maite Higueros Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria, Itsaso Gonzalez adinduen arloko gizarte langilea eta laguntza lana ematen duen Valoriza enpresako Marisa Mansok etxebizitza berriak bisitatu zituzten eta zerbitzu honek izango dituen aldaketak azaldu zituzten.

Lehenik etxebizitza berriak Udalaren jabetzakoak direla adierazi zuen Gorka Lizarragak Gizarte Zerbitzuetako buruak, "aurrekoak alokairuan hartuak zituen Udalak".

Pertsona adinduek

Etxebizitza hauek irisgarritasun edota bizigarritasun baldintza egokirik gabeko bizilekurik ez duten edo



Valoriza enpresa eta Gizarte Zerbitzuetako ordezkariak Gorka Lizarraga zinegotziarekin batera egin zen bisitan.

beraien bizilekuan elkar bizitzeko arazoak edo bakardadea duten 60 urte baino gehiagoko pertsona adinduek bizi dira. "Baina dependentzia gradu larririk ez dutenak, bestela Atsotarreko zahar etxean egongo lirateke" zehaztu zuen Itsaso Gonzalez gizarte zerbitzuetako langileak.

Etxebizitza kolektiboak

Honetaz gain, zerbitzu honetako etxebizitza tutelatuak kolektibo izaera izango dute hementik aurrera.

Maite Higueros Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria azken helburua zerbitzuaren erabiltzaileen autonomia handitzea dela aipatu zuen. Gaur

egun etxe laguntzaile bidez etxe laguntza zerbitzua kudeatzen du Valoriza enpresa eta honek jarraituko du lanean, baina laguntza gutxiago eskainiko zaie egoiliarrei.

"Erabiltzaileen beharrei dagozkienak" azaldu du Higuerosak eta era berean, autonomia hori landuko da eskainiko zaizkien ikastaroetan.

Maite Higuerosak aipatu zuenez, prozesu luzea izan da eta honetan erabiltzaileek ere parte hartu dute haien irizpiz emanez.

Honetaz gain, lau etxebizitza hauek Beko kalen daude kokatuak, "behar dituzten zerbitzuak eta Biyak-Bat erretiratuen etxea ere gertu dituz-

te. Eta aldaketa honekin oso pozik agertu dira".

Plaza berriak

Gainera, lau etxebizitza izanik, plaza kopurua ere handitu dutela aurreratu zuten.

"Lehen hamabi zeuden eta orain hamasei. Eusko Jaurlaritzak egingo duen eskaerari aurreratu gara honetan" jakin arazi zuen Maitek.

Gauzak honela, bederatzik plaza geratzen dira libre. Zerbitzu honetan egon ahal izateko Gizarte Zerbitzuetara jo behar dela aipatu zuten.

Era berean, aldaketa hauek guztiak zerbitzuaren gastua gutxi gorabehera %50ean murriztuko duela adierazi zuten.

KIROLA

Martin igerilaria 3. Ondarroako Itsas zeharkaldian

Buruntzaldea IKT-ko Juan Viente Martin, Jose Luis Sevillano, Imanol Guerra eta Yolanda Pastorrek Ondarroako itsas zeharkaldian parte hartu zuten, uztailaren 21ean, eta lan ona egin zuten proba honetan.

Juan Vicente Martin hirugarren sailkatu zen beteroenen mailan, 23 minutu eta 41 segundotan amaiztutako igerialdiarekin.

Yolanda, Jose Luis eta Imanol 28 minuturen bueltan izan ziren.

Borja Apeztegia Buruntzaldea IKTko entrenatzaileak azaldu digunez, "Yoli aurreko asteetan gaxorik egon ondoren poliki-poliki forma berreskuratuz doa eta Jose Luis eta Imanol ere gero eta hobeto aurkitzen ari dira itsasoan".

Bestalde, taldeko Haitz Mitxelena eta Itsaso Tolosa Terrassan daude Espainiak txapelketan parte hartzen.

Haitz asteazkenean parte hartu zuen 200 m. tximeleta proban.

Ezin izan zuten bere marka hobetu, 2'17"02 egin du, baina "bertan egotea nahiko sari handia da berarentzat" aipatu du Apeztegia entrenatzaileak.

Itsaso Tolosa, aldis, bihar goizeko 9:30ean lehiatuko da 200 m. bizkar proban.

IKASTAROA

Birziklatze tailerra Elizatze plazan

Lasarte-Oriako Udalak antolatutako udako kultura egitarauari amaiera emango zaio bihar birziklatze ikastaroarekin.

Hau Udaletxe zahararren pareko plazan, Elizatze plazan egingo da 10:00etatik aurrera eta eguraldi txarra eginez gero, San Pedro elizako arkupetan egingo dela aurreratu du Udalak.

8 eta 14 urte bitarteko gazteei zuzendua badago ere, orain arte egin diren saioetan gurasoek ere parte hartu ahal izan dute.

Tailerreko arduradunek plastikozko botilak, tetrabrik esne ontziak edota kartoiak eramateko eskatzen diete saioan parte hartu nahi duten haur edo helduei. Izan ere, edozein etxeetan erabili ohi diren ontziak edo produktuen bilgarri baitira eta horiek ingurumena kaltetzen dituzte.

Bidali zure bideoak Euskararen Maratoirako

Euskararen Maratoia gerturatzeko doa eta festa handi honetan ekintza bat burutu ahal izateko, atzerrian bizi diren herritarren laguntza eta parte hartzea eskatu nahi dute antolatzaileek.

Horrela aurtengo oportunitatean atzerrian duzun lagun bat bisitatzeko asmoa baduzu, edota kanpoan bizi eta herrian bisitan bazara, animatu eta parte hartu. Egin beharrekoa bideo txo bat da.

Zer da zuretzat maratoia?

Bideo honetan herritarrek euren burua aurkeztu behar dute, non bizi diren azaldu, zergatik daude han eta euskararen maratoia beraietzat zer

den esan. Asmoa ahalik eta bideo gehien jasotzea da ondoren maratoian zehar emititzeko.

Bideo laburrak behar dute

izan, mugikorarekin edota argazki kamararekin egindakoak.

Bideo labur hau ondoren txintxarri@ttakun.com helbi-

euskararen 8 maratoia



Bideo eredua www.euskararenmaratoia.com web gunean dago ikusgai.

dera bidali beharko da. Nola bideoa eskatzen den jakiteko edota zalantzak argitzeko, www.euskararenmaratoia.com-en adibide bat aurkituko duzue, Okendo plazan grabatutakoa hori bai. Atzerrian bizi den lagun edo senidea baduzu bideo bat egitea animatu eta bidali!

Gogoratu bideo labur bat dela egin beharrekia eta helburua atzerriko festa hau nola bizi duten ezagutzeko dela. Horrela maratoia Lasarte-Orian ospatzeaz gain, munduko hainbat txokotan ere presente izango dela erakutsiko da. Lotsarik ez izan eta animatu jendea bideoak bidaltzea!



Mezatan, honen ondoren eliza kanpo aldean eta Santa Ana karkabaren aurrean dantzatu zuten Erketzeko kideek eguerdian. Karkaban ohikoa denez ikurriña eta zapia jarri ziren.



Takunek hamaiketako eman zuten mezaren ondoren urtero bezala.



Txokoetako 3 eta 4 urteko haurrek Okendon dantzatzu ospatu zuten Santa Ana eguna.

Santa Ana Egunean goizetik dantzan

► Ohiturari jarraituz Brigitarren kaperan eta Santa Ana Karkaban dantza egin zuten Erketz taldekoek

Santa Ana eguneko ospakizunak ostiralean goizetik hasi ziren, 11:00etan Brigitarren kaperan esan zen mezarekin, eta ondoren eliza kanpoan Ttakunek eman zuten hamaiketakoarekin. Erketz taldekoek dantza egin zuten mezan, ondoren eliza kanpoan eta 12:00etan puntu puntuan Santa Ana Karkaban.

Jon ALTUNA IZA

Janta Ana eguneko ospakizunak goizean hasi ziren ostiralean. 11:00etan Brigitarren komentuko kaperan Santa Ana eguneko meza eman zuten urtero bezala, Xabier Andonegi parrokoak. Eliza bete egin zen Santa Ana eta San Joakinen irudien aurrean egindako meza berezian parte hartzeko. Erketzeko bi kideek aureskua dantzatu zuten bertan txistulariaren laguntzarekin.

Meza ostean, hamaiketako prestatu zuten Ttakun kultur elkarteko kideek komentuko kanpoaldean, eta Santa Ana eguna giro onean hasteko aukera izan zuten elkartu direnak. Erketz dantza taldekoek behin eta berriro egin zuten dantza: Kaperan barruan, kanpoan eta Santa Ana Karkaban dantzatu zuten. Santa Ana eguneko goizeko ospakizunera hurbildu zirenek zerbait jan eta edaten zuten bitartean fandango eta arin

arin dantzatu zituzten Brigitarren komentuko kanpo aldean.

Santa Ana karkaban Brigitarren komentutik udalaxe ondoko Santa Ana Karkabara abiatu ziren bildutakoak dantzariekin batera, tripa bete eta gero. Ohiturari jarraituz, eguerdian elizako kanpaihotsekin batera hasi ziren agurra dantzatzeko Erketzeko dantzariak karkaban jarritako ikurrinaren aurrean.

Gero eta herritar gehiago biltzen da Santa Ana eguneko dantza ikustera eta guzkiek txalo zaparrada bero batekin eskeru zuten dantzarien ahalgina eta trikitilarien laguntzaz berriro fandango eta arin arin dantzatzu eman zioten gero amaiera goizeko ekitaldiari.



Giro onean ibili ziren aktoreek ekaitza leheru arte herriko kaleetan barrena.



Parodiako aktore guztiak Ttakunen jantzi eta elkaru ostean Palomo Linares elkartearen egin zuten afaria ohi bezala.

Umorea krisia gainditzeko

Danok-Kide elkartearen omendu zuten parodiak

Ekaitza leheru eta euri jasa handiaren ostean egin zen Santa Ana eguneko parodia. Azken momentura arte itxaron behar izan zen parodia bertan behera geratzen zen jakiteko. Antolatzaileek aurrera egitea erabaki zuten nahiz eta atzerapenarekin hasi. Bustita baina gogotsu aritu ziren aktoreak.

Desfilearekin eman zitzaien hasiera Santa Ana eguneko parodiari. Pertsonaia guztiak herriko kaleetan barrena murgildu ziren Okendora iristeko. Ekaitza leheru eta ezin izan zuten aktoreek desfilea amaitu. Arratsaldeko lehen orduetatik mugimendua nabaria zen Ttakunen goiztan, pelukak, jantziak, orrazkerak... denak jantzi, elkartu eta familia argazkia egin ostean goiz, 19:30ean, afaltzen ziren Palomo Linares elkartearen bertako kideek gonbidatuta.

Umorea jaun ta jabe

Lehenik omenduen txanda izan zen. Liemi Rekondo bertso eskolako ikasleak Ana Labakaren bertsoa kantatu zuten Danok-Kide elkarteakoei.

Hauk, hunkituta, eskerrak eman zituzten urtetako lana aitortzeagatik.

Ondoren parodiari hasiera eman zitaion. Ohi bezala kritika nagusitu zen eta denetarikoa pertsonaia ikusi ahal izan ziren oholztan. Tardean, Madonaa abeslaria, Torrente eta bere laguntzaileak, apaiza eta akolitua besteak beste. Akusatua auren Patxi Xoxa Pilla eta Marta Zurriñe Izurritegi izan ziren eta abokatu eta fiskal lanetan aritu ziren Noemi Fernandez eta David Bravo herritarrek.

Krisi ekonomikoa izan zen gai nagusia eta besteak beste, herriko denden itxierari egin zitaion aipamena "Herriko dende izen beru dute, denak dira Liquidación eta abizena, por cese, por jubilación...likidatu nahi gaituzte". Torrente eta bere laguntzaileak udaltzaingo bikote paperean, proposamenak egin zituzten ere udalaren egoera ekonomikoa hobetzeko.

Horretaz gain, Madonaa abeslaria Pablo Barrio alkateta hain dantzari ona dela ikusita, berarekin eramango zuela esan zuten.

Bilote haremnan hizpide Apaiza eta bere akolitua berriz, bikote haremnan krisia izan zuten hizpide. Hauen proposamena Alemaniatik ekarritako "emakume karabana". Dibortzio tasa jaistea zen hauen helburua.

Komando bat ere sortu omen da herrian, "LAGACI" grupo anti conducta incívica. Hauk jarri omen dute Okendo plazan arratoiak harrapatzeko tranpa erraldoia, hori bai, haurrek erabiltzen dute jolasteko eta helduek gainean eseritzeko...

Ordu bete luzeko antzezpena arrakastatsua izan zen oztopoak oztupo.

ALBA
KOOKAÏ
NAFNAP
VERSE
ARROPA DENDA
Merkealdiak!!
Nagusia 65 behea • Lasarte-Oria • Tel.:943 574450

Osasun-azterketak gidariak
Reconocimientos Médicos armak
conductores armas
Geltoki 2 behea • Lasarte-Oria • Tel.: 943 374224

PALA.-

Odriozola eta Martin garaile pala txapelketako finalean

Final berdindua izan zen eta azkenean, Bardaji eta Etxezarretari 32-34 irabazi zieten

XXXI. Santa Ana pala txapelketako finala jokatu zen atzo arratsaldean. Ordu eta berrogeita hamabost minutuko partida luzea eta berdindua izan zen Odriozola-Martin eta Bardaji-Etxezarretak jokatutakoa. Azkenean, Odriozola eta Martin izan ziren garaile. Aurretik, hirugarren postua izan zen jokoan eta Arluziaga eta Garcia izan ziren garaile. Honetaz gain, Etxezarreta harategiko lagunei omenaldi berezia egin zieten antolatzaileek.

Nerea EIZAGIRRE

Beroa eta hezetasun handia izan arren, atzo arratsaldean Santa Ana pala txapelketako finala jokatu zen Loidi-Barrengo pilotalekuan.

Odriozola-Martin eta Bardaji-Etxezarretak partida luzea eta berdindua jokatu zuten.

Ederki ibili ziren bi bikoteak defentsan eta erasoan. Honela tanto luzeak izan ziren partida osoan zehar. Arerioaren akatsa bilatzen zuten edo tantoa landu eta dejada bilatzen zuten.

Honela, markagailuan berdinketa ugari ikusi ahal izan ziren 02-02, 04-04 edo 09-09.

Berdinketa honen ostean, Bernaitz eta Santik errenta hartu zuten 14-20.

Baina Etxezarreta eta Arluziagak ez zuten amore eman eta ederki jokatuz errenta txikitu zuten berriro ere berdinketa lortzeko, 26-26.

Partidako azken tantoetan erabakiorrak izan ziren Odriozolak egindako dejadak eta Bardaji-Etxezarreta bikoteak egindako akatsak.

Gauzak honela, ordu eta berrogeita hamabost minuturen ostean, 32 eta 35 gailen-

du ziren Bernaitz Odriozola eta Santi Martin.

Brontzeko postua

Hirugarren postuko lehian, berriz, Iñaki Lizasok bikote aldaketa izan zuen. Alcibarrek ezin zuen jokatu eta Xenki Astiazaranek hartu zuen bere lekua. Aurrean Iñigo Arluziaga eta Carlos Garcia izan zituzten.

Hasieratik Arluziaga eta Garcia jarri ziren aurretik eta pixkanaka errenta handitu zuten. Arerioen hutsai eta tantoak ongi landuak eginez hamarreko errenta iritsi ziren, 16-6.

Lizasok min hartu zuen belaunean salto baten ostean, baina horrek ez zuen eragin handirik izan bikotean. Izan ere, markagailuan hurbiltzen joan ziren tantoka.

Tanto politik eta luzeak ikusi ziren, aurrean utzitako pilotak eta zabalera jokatutakoak.

Honela, tanto batera egotea, 25-24, iritsi ziren Lizaso eta Astiazaran.

Baina Arluziaga eta Garcia berritoki ere arerioen hutsak bilatuz eta zabalera jokatzen tantoak egin eta 34-26-a jarri zuten markagailuan.

Guztia bukatua zirudien arren, Xenki eta Iñakik lau



Pagola txapelketako antolatzailea, Xabier Etxezarreta, Santi Martin, Bernaitz Odriozola, Mikel Bardaji eta Tasio Arrizabalaga udaleko kirol burua.

tanto gehiago egin zituzten 30-era iritsiaz. Arluziaga eta Garcia lekuz aldatu behar izan zuten tanto bat baino gehiagotan.

Azken tantoan Xenki pilotak txapa behera bidali eta garaipena eman zien Arluziaga eta Garcia bikoteari, 35-30.

Omenaldia

Hau guztiaz gain, bi partidaren arteko atsedendian antolatzaileek eskerrak eman zizkieten txapelketan parte hartu duten lagunei.

Eta omenaldi berezia egin zieten azken hamabi urte hauetan txapelketako babesle izan den Etxezarreta harategiko, Xabier Etxezarreta eta Lierni Etxeberriari.

Erketzeko dantzariak agurra dantzatu zuten eta lore sorta eta plaka jaso zuten Car-



Xabier Etxezarreta eta bere amari, Lierni Etxeberriari omenaldi egin zitzaion.

los Garcia eta Jesus Ferreira-ren eskutik.

Zozketako zenbakia

Era berean, Santa Ana pala txapelketako antolatzaileek

jakin arazten dute, pala txapelketako zozketan zenbaki saritua 093 txartela dela. Irabazleak hamabost eguneko epea du Etxezarreta harategira hurbildu eta saria eskuratzeko.

KIROL AGENDA.-

IGERIKETA

Ostirala 27

Terrassa, 09:30ean

Buruntzaldea IKT-ko Itsaso Tolosa Espainiako Txapelketako 200 m. bizkar proban lehiatuko da.

Igandea 29

Getaria, 12:00etan

Buruntzaldea IKT-ko hainbat igerilarik XLII Getaria-Zarautz igeri zeharkaldian parte hartuko dute.



TENISA

Astelehena 23-igandea 29

BURUNTZALDEAKO TXAPELKETA

Urnietako kirolgunea

Oscar Parrondo-Carlos Arregain

Tito Loza-Haritz Lizarazu

Mikel Espinal-Iker Macia

Jon Ramos-Javier Velasco

Oscar Parrondo-Iñigo Perez

Noe Romero-Haritz Lizarazu

Alberto Gil-Iker Macia

Astelehena 30-igandea 05

BURUNTZALDEAKO TXAPELKETA

Urnietako kirolgunea

Carlos Arregain-Javier Sodupe

Mikel Espinal-Jon Iuretagoyena

Jon Ramos-David Cordobés

Mikel Espinal-Alberto Gil

Iñigo Bereziartua-Iraitz Irigoyen

Juan R. Del Pozo-Javier Sodupe

Tito Loza-Xanti Ramirez



TXIRRINDULARITZA

Larunbata 28

Irun, 08:30ean

Herriko hainbat txirrindularik

"Juanma Garate martxa zikloturista" -n parte hartuko dute.

Azpeitia, 16:00etan

Bazpi txirrindularitza eskolako eta herriko kadeteek XXXII. San Ignazio sarian parte hartuko dute.

Igandea 29

Biyak Bat, 08:00etan

Ostadar SKT-ko zikloturistik irteera dute Altzagaratera.

Alegia, 10:00etan

Bazpi txirrindularitza eskolako eta herriko jubenilek Gipuzkoako taldekako erlojupekoan izango dira.

Alegia, 11:30ean

Bazpi txirrindularitza eskolako eta

herriko kadeteek Gipuzkoako taldekako erlojupekoan izango dira.



ZALDI LASTERKETA

Astelehena 30

Hipodromo, 16:30ean

2012. denborladiko hirugarren jardunaldian El Diario Vasco saria izango da sari nagusia.

Agenda

Osteguna 28, Okendo plaza, 18:00etatik aurrera



Punk eta rock festa handia

Gorri Punk Fest jaialdi-omenaldia ospatuko da Okendo plazan. Duela urte bete hil zen Enrique Cob "Gorri" gazteari omenaldia egingo diote bere lagunek eta horretarako berak gustuko zituen talde eta musika estiloak nahastuz kontzertua egingo da. Apurtu, Ernia, Venganza, Subversion X eta Obito, Mörghhead eta Bar Remigio taldeak izango dira oholtza gainean. Txosna ere izango da.

Bertsolaritza

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Larunbata 11, 21:00etan

Pikabea eta Etxeberria bertsolariei omenaldia egingo zaie.

Astigarraga

Jai

ERDIALDEAN

Larunbata 21-Larunbata 28

Santio eta Santa Ana jaiak ospatuko dituzte astigarragarrek.

Zubieta

Jai

ERDIALDEAN

Asteazkena 25-Astearte 31

Santio jaiak ospatuko dituzte Zubietan.

Larunbata 28

12:00etan

Herri kirolak ZUBIETA-ZABALETA erronka. Lokotxa biltzea, trontza, korrika, arto aletzea, txinga, sagar biltzea eta zaku karrera egingo dituzte.

23:00etan

Triki-rock jaiak ospatuko da The Garax, Desegin eta Laiotz taldeekin.

Astearte 31

18:00etan

Aratz Mugerza eta Irazu aizkolarien eta Landarbie harrijasotzailearen lana ikusteko aukera.

Ondoren

Trikihots taldearekin erromeria plazan.

Lasarte-Oria

Musika

SIGLO XX

Larunbata 28, 23:30ean

Trifulca Posse taldeak hip-hop eta funk saioa eskaini du, udako kultur kalea zikloaren barruan. Doan.

Ikastaroa

ELIZATZE PLAZA

Larunbata 28, 10:00etan

Herriko 8 eta 14 urte bitarteko gazte-txoentzat tailerra antolatu dute. Materialak birziklatuz egin daitezkeen gauzak ikasiko dituzte. Gaztetxoek plastikozko botilak, tetra-brickak eta kartioiak eraman behar dituzte tailer-reen parte hartzeko.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Abuztu osoan zehar

Estudio del Pintor marrazki eskolako ikasleen erakusketa.



Herritarren txokoa

Kiroldegiko ordutegia abuztu

Lasarte-Oriako Udalaren Kirol-Instalazioen 2012. urterako egutegiaren arabera, abuztuaren 1etik 14era bitartean, bi egunak barne, bi asteko geldialdi teknikoak egingo da, instalazioetako mantenu eta garbiketa lanak burutzeko.

Egun horietan Kirol guneko Abonatuek Urrietako, 943 008 328, instalakuntzak erabiltzeko aukera izango dute.

Odola ateratzea

Hileroko azken astelehenetan bezala, odol ateratzak egingo dituzte Osasun Zentroan uztailaren 30ean, arratsaldeko 17:30etik 21:00etara. Anima zaitzete, odola ordezkaezina da eta odol falta dago!

Herrira-ren elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, Lasarte-Oriako Herrira mugimenduk kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte har dezaten.

Galeper ehiza uztailaren 31ean

San Ignazio egunean, uztailaren

31an, Buruntz-Azpi elkarteak galeper ehiza ekintza antolatu du Buruntza mendiko zelaietan. Galeperra kaiola eran izango da ehiza modalitatea. Honetan parte hartzeko, uztailaren 27a baino lehen eman behar da izena elkartearen egoitzan.

Antolatzaileek ohartarazten dute parte hartzaileek agiri guztiak eguneratuak izan behar dituztela.

Ehiza baimenak egiteko garaia

Buruntz-Azpi elkarteak jakin arazten du ehiza-baimena izan nahi duten herritarrek, elkarteko egoitzan egin dezaketela.

Horretarako astearte edo ostegunetan 19:30etik 20:30era hurbildu behar dute elkartera.

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, betaurreko graduatuak eta eguzkitako betaurrekoak.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte.

Horietakoren bat ikusteko interesatuta dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etarako ordutegian.

Hemeroteka

Duela 1020 ale

Juan Carlos Lopera herriko jockey-ari buruzko artikulua argitaratu zen kirol atalean.

Zaldi lasterketen munduan murgiltzeko arrazoietako batzuk, gure herrian dagoen zaletasuna eta hipodromoaren gertutasuna izan zitezkeela adierazten da artikuluan.

Jose Carlos Loperak 17 urte zituela zaldien munduan eman zituen lehen urratsak. 18 urte zituela egin zuen debuta Hipodromoan hain zuzen ere. "Zaldia hirugarren postuan sartu zen eta jende askok txalotu ninduen," gogoratzen zuen.

Eta 1994 urtera arte, 500 lasterketa baino gehiagotan parte hartu zuen. Donostia eta Madrilgo hipodromoz gain, Frantziakoetan ere izan zen lehiatzen. "Ez dago konparatzerik hango eta hemengo giroa. Han lasterketak askoz ere garrantzitsuagoak dira," adierazten zuen.

Bere lehenengo garaipenaz ere mintzatzen zen Jose Carlos Lopera artikulua honetan, "Lalin izeneko zaldi batekin irabazi nuen lehen lasterketa 1989ko udan. Benetan une polita eta hungigarria izan zen... Afizio guztia txaloka erabat emozionatu nintzen".

Hau guztiak gain, bere ametsa urrezko kopan parte hartu eta irabaztea zela onartu zuen, "Urrezko kopan muntatzea gustatuko litzaidake. Jakina, irabaztea, hori litzateke gehien gustatuko litzaidakeena".





Herritarren iragana ikusteko aukera eskaitzen dute argazkiok.



Alberto Vazquez, Xabier Goitia eta Boris Nogales asteazkenean egindako agerraldian.

Iragan hurbila sarean

► Tomas Fernandezek 364 argazki lasarteoriasarean.eu-n

Boris Nogales, Kultura saileko batzorde burua, Xabier Goitia kultura teknikaria eta Alberto Vazquez web gunea kudeatzeaz arduratzen den teknikaria izan ziren Manuel Lekuonan egindako agerraldian. Bertan www.lasarteoriasarean.eu web gunearen balorazioa egin eta honetan txertatutako berrikuntzak aurkeztu zituzten. Tomas Fernandezek argazki zaharren bilduma eta udalak argitaratutako bost liburuak pdf formatuan dira sarean jarritako azkenak.

Maider AZURMENDI

Tomas Fernandezek argazki bilduma digitalizatu du udaleko kultura sailak. Guztira 364 argazki dira udalaren fondoan zeudenak eta dagoeneko www.lasarteoriasarean.eu-n daude ikusgai eta eskuragarri.

Asteazkenean egindako agerraldian Boris Nogales, Xabier Goitia eta Alberto Vazquez-ek azaldu zituzten prozesu honen nondik-norakoak.

Udalaren artxiboan dauden argazkien artean bilduma hau izan da lehenaren jartzen.

Xabier Goitiak azaldu moduan, "Tomas Fernandezek argazki denda bat izan zuen Geltoki kalean urte askotan. Argazkilari amorratua zen eta 2002an erakusketak bat antolatu zen omenaldi modura bere lanekin". Erakusketak honen ondorio izan zen udalak argitaratutako "Lasarte-Oria zuri beltzean" argazki liburuak. Bere garaian

liburu honetan 120 argazki jaso ziren baina udalaren esku geratu ziren orain sarean jarritakoak.

Alberto Vazquezek web gunea kudeatzeaz arduratzen den udal teknikariaren hitzetan "kalitate onean jarri dira sarean herritarrek nahi izatekotan deskarga ditzaten".

Liburuak pdf formatuan

Argazkiekin egindakoaz gain, udalak argitaratutako bost liburu ere jarri dira eskuragarri doan eta pdf formatuan.

Aurrerantzean udalaren artxiboan dauden beste argazkiekin prozesu bera egitea da asmoa. Hala ere, zailtasunak tarteko pixkanaka egingo dela aurreratu dute. Honekin batera oso positiboki baloratu dute lasarteoriasarean.eu web gunearen lehen urtea. "Sare sozialetan egotea ere ahalbidetu digu web berriak".



Errazioak
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Entsaladak

Eta ekainetik aurrera
eguneko menuak

taberna
Arkupe

facebook.com/ArkupeTaberna

Tel.: 943 37 17 42
Largonea Kalea, 1
20160 Lasarte-Oria